

ITZUL GIROA

Txillardegia

—Badakika? Urlia joan duk... Badakika? Sandia baziak... Badakika? Berendia bestaldean zegok...

Bai. Horik entzuten ditugu hemen gero maizago. Beharrik entzuten. Egia. Urte gogor hauetan gure tristura luze eta pozaldi laburretan bizikide izan genituenak, hasiak dira, isilean, espanturik gabe, etxe aldera bihurtzen.

—Halakoa baziak, eta afaritxo bat eskaintzen zioagu. Etorriko ahal haiz hi ere?

Eta afaria egiten dugu, denok elkargana azkenekoz biltzen ote garen beldurrez. Eta nor bere herri-runtz abiatzen den une honetan, berezten ere garela senditzen dugu, soldautza edo gartzelaldia bukatzean bezala edo; atzerrira etorri aurretik ez baikinaren elkarrekin bizi.

Hamar, hogeia, berrogeia urte azkengabe honetan itzuli-nahi berberetan anaiturik geundenok, hasiak gara elkargandik urruntzen nor Bilbora, nor Iruñera, nor Arrasatera, nor Zumarragara...

Agur-afariak alai gertatzen dira, hori bai; eta euskal kankak ozen eta ugari sortzen dira. Eta, halaz ere, elkarri «agur» esaterakoan, halako imiko izkutua nabaitzen da askoren bihotzondoan, gelditzen garen artean batez ere. Hitzik gabe hau galdetzen baitugu geure kolkotan: «itzultzeko aukerarik izango ahal dut nik inoiz?»

—oOo—

Eta zalantzarik gabe bizi-haro bat joan zaigulako, pentsakor gelditzen gara; ongi jabetzen baikara denaz. Gogorra izanagatik ere, gogorra



izan delako hain zuzen, adiskidetasun sakon eta iraunkorrek sortu dituen denongan atzerrialdi luze honek.

«Agur, lotsagalduta hori!» —esaten diogu joatean, trufa-itxuraz. «Hi bahoia, eta hor konpon. Ez da hori? Gutzaz azkar ahantziko haiz, zerri hori!... Noiztenka bederen agurtzera etorriko haiz, ez da? Noski! Isil hadi! Agur betirako!». Aurpegi irribarrez, baina ilunago barnea; Bruselan eta Parisen horrelaxe agurtutako lagun honen eta haren eta bestearen arrastorik bate-re ez baitugu izan geroztik: bost, zortzi, hamabi, hogeita-bost urtetan barrena. Ezta hotzaldi urrun lanbrotsuetako Eguberri bakarti haren goxagarri. Etendura! Nork omen daki hitz honen berri? Ixo, otoi; eta deserrituak mintza bitez. Edari mina, zinez, loriarik gabea, atze-

rrian ahantzia izan, atzerrian nork bere burua ere ahantzi, eta bizirik ere hilik iraun behar horri datxekona.

«Agur, ba, etxera zoaztenok. Eta mila zorion! Balia zazue patuak eskaintzen dizuen parada!». Han eta hemen, berriz, gero eta bakarrago eta zaharrago gelditzen direnez, zer? Caracas-en, Bogota-n, Mexico-n topatu ditudanak, gupidagarri izan zaizkit gehienetan; «moltsa tturrinduta» ez badaude ere, tropikoetako bero etengabeak akitu eta histu dituelako; beren buruentzako ere arrotz eginez: erdibiturik agian, edonorako atzerriturik eskerki.

Hemen, berriz, Iparraldean alegia, ez gaude atzerrian; paperkeriaren mailan eta bertan bizitzeko eskubideaz besterik dela ongi sendi-erazten bazaigu ere. Baina gurean gaude funtsean; eta bertako anitz aberkideren laguntza bikaina ez zaigu larrialdian inoiz eskas gertatu.

Urrun etsian; hamar, hogeia, berrogeia urtetan zai egon ondoren, afari zalapartaritan bidari berriak oraindik ere hemen agurtzen ari... Eta pozik gabe ustelduko oraingoan; joan nahi duena, omen, omen bai, nahi duenean joan baitaiteke!

Badoaz, beraz, gure atzerrikide hurbilak, badoaz kutsadura eta herria zulo horretara; eta, halere, bekaizkeriaz begiratzen ditugu ezin joanok. Besterengatik ez balitz ere, azkenean «mementorako» egoera luzakor, zail eta antzu honi amaia emango diotelako. Ez baita gutxi!

—oOo—

Badakigu, bai, odol-taupada ahulkorretan beretan ikasia, atzerrian



Ezen adiskideak horrerako bezperan hemen agurtzen ditugunok, halako batez itzultzeko esperantza ez baitugu guk galdua.

Baina gure tristura luzeak eta pozaldi laburrak gurekin, zelai ilun urrun arrotzetan, dastatu zituzten batzuk, gure arteko leialenak hain zuzen, justizi-egarrienak, herri-minduenak, lurpetako isilpe osoan baitautza, azkeneko esperantzak berak oinaze ezin latzagotan iraungita... Eustakio anaia! Hi hatorkit aurrenik, zurbildurik, zulaturik, kirasturik! Hi biziaren irudia, ausardia berria: geldi-arazia. Eta hi ere bai, Txapela, Baionako gosekide isila; eta hi, Korta, ez horren aspaldi, biok lanean ari, Landetako bazkaldegi hartan ustekabeen bazkalkide gertatua. Eta besteok: Iharra, eta Andoni, eta Josu. Itzul-giro loretsu honetan, zuek, prestuenak, umantek, betirako deserrituak!

Itzul-giro honetan, zuen oroitzapenetan, sekula itzuliko ez zareten gomutagarri, minutu bateko isilunea eskatzen dut, eta lats-zurumurrurik isilena eta olerkitsuenena.

TXILLARDEGI

iaz hil zen poeta hark esaten zuen bezala, joaterakoan utzi genuen sorlekua, gure gaztaroarekin batera suntsitu zela; eta, bere eder eta ameskarri hartan, geure gogoan ez beste inon dirauela. Badakigu, bai, handik joanez geroztik, azkartu eta ugaldtu egin direla gorrotoak eta oinazeak gure herrian; eta herria zuzpertz eta berotu ala, mindu eta minberatu ere egin dela. Badakigu (nork ba guk baino hobeki?) urte asko joan zaigula beha horretan, ez garela ordukoak berak; irtetean genituen karra eta sasoi, haize zakarrear udazkeneko hostoen antzera, zimeldu direla urteen jarioan. Gure eskuak nagitu, eta gure bihotzak moteldu egin direla; eta gureak baino azkarrago eta sendoago daudela gure ondoko gazte suharrengan. Badakigu, bai, ontziaren lema guk baino ausarkiago atxik dezaketena hor nunbait daudela, gure semeen eta iloben artean, eta ez ditugula ezagutzen. Hamar, hoge, berrogei: urte gehiegi!!

«Hire aldia joana duk», entzun erazten digu abots ezinago isil batek; Axularren aitoren lazarriaren oihartzuna gugan hitzez-hitz berretuko bailitzan: «hemengo aldia egin-hurran baitut». Joaten hasia bai bederen. Ez dakigula uste duzu? Sumatzen ere ez dugula? Mintzen bagaitu ere, ongi dantzugu arratseko kanpai-hots etsia. Nork pentsa lezake geure buruaren gainbeheraz ohartzan ez garenik?

Badoaz. Eta guk ere istilu eta

arrisku eta liskar zulo horretara nahi! Halaz ere! Eri etsituak biziaren negar-ibar hits horretara itzuli nahi izaten duenaren arabera. Herriotza baino azkarrago da bizia. Soka azkarrak lotzen ditu gizona eta sorterrria. Mexicon egon naizelarik, euskaldun komunista internazionalista amorratu batzuk atxeman ditut, abertzaletasunaren belaskeriak «gaintu» omen dituzten horietakoak; eta nola edo hala sorlekura itzuli-nahi bizian, eta aberri-minez zeharo jota, ikusi ditut. Zertan gara, hortaz?

—oOo—

«Larresoro» hemen geldituko da aurrerakoan, Iparralde honetan, Kanbo-alde baketsu horretan, urte luze hauen lekuko mutu. «Txillar-degi», berriz, antigutar ezaguna, hor doakizue, ene aurretik, mezulari, herra-zulo madarikatu horretan burrukan segitzeko gertu; ondolik ni neu ere zuen artera agertzeko esperantzan. Aspaldiko partez, beraz: egun on zuri, irakurle horri.

—oOo—

Baina, nola ukatuko, zertarako izkutatuko, itzul-giro saror honetan, irudi batzuk datozela arrapaladan oso bereziki, eta behin eta berri, geure barne-muinetan.

EGUN EGUNGOA

Osagileentzako berria

Horra zer esan duen arestian ministro berri batek: «Euskaraz ikasi nahi duten guziek ikasteko modua izango dute».

Horrela eginez gero, aurrerantzean gaisotegietan osagileek galdetu beharko diete eriei: «Osatu nahi duzua?».

Daniel Ibargoiti